LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2011ko MARTXOAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko martxoaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.00 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
   - **2011ko otsailaren 3an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Haurreskolako koordinatzaileak egiten dituen eskaeren azterketa, hala bada.**
4. **2011 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
5. **Manuel Larramendi Kultur bazkunari 2011 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**
6. **Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) atxikitzea, eskubide osoko kide bezala, hala bada.**
7. **DINA 7 Taldearen eskaera aztertu, hala bada.**
8. **VII. Aiztondo Klasikoaren kitapenaren berri ematea, hala bada.**
9. **VIII. Aiztondo klasikoari 2011 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
10. **2011 ekitaldirako udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea.**
11. **Larraulgo Udalaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren arteko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
12. **Fakturak eta ordainketak.**

13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2011 urteko otsailaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
HAURRESKOLAKO KOORDINATZAILEAK EGITEN DITUEN ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Haurreskolako koordinatzaileak igorritako idatzia, non dioen:

"Larraulgo haurreskolako koordinatzailea zuregana zuzentzen da adierazteko Haurreskolak Partzuergoak egindako Larrialdi Planaren ebaluaketan, Larraulgo udalari dagozkion gabezi batzuk zehaztu dituztela haurreskolan. Hauek dira zehaztutako gabeziak:

- *Ebakuazio-bideek eta- irteerek seinaleak izan behar dituzte. Norabidearen seinaleak jarriko dira korridore eta eskaileretan, irteera ikus daitekeen puntura arte.*
- *Igogailuan, sute kasuan ez direla erabili behar jakiteko seinaleak jarri.*
- *Garbitzean erabiltzen diren produktu kimikoen Segurtasun Datuen Fitxak bildu.*
- *Behe-solairura jaisteko eskailerak eskubandarik ez du. Eskaileretan eskubanda jarri behar da."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-Larraulgo Udalak, Larraulgo haurreskolako koordinatzaileak igorritako idatzian azaltzen dituzten gabeziak ahal duen einean beteko dituela, jakinaraztea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo haurreskolako koordinatzaileari ematea.

LAUGARREN PUNTUA
2011 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2011 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2011ko urtarrilaren 17tik otsailaren 11rarte epea ireki zela, 5 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2011 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

-J.A.Z.: SS-3090-L ibilgailu historikoa.
-O.O.R.: IBI -famili ugaria.
-E.A.M.: IBI -famili ugaria.
-A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
-I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BOSTGARREN PUNTUA
MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2011 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2011 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duela “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 2.890,00 eurotakoa, eta bertan % 60-aren ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Krisi garaian gaudela eta Larraulgo Udalak bere aurrekontuak egiterakoan hainbat partida murriztu beharrean suertatu dela, “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmoaren” aurrekontuaren koste osoa ezinezkoa egiten zaiolarik onartzea. Horregatik proposatzen da “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmorako” 2.000,00 eurotako diru ekarpena burutzea.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- "Beterri-Aiztondo gerora bidean" 2011 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua 2.000,00 eurotako kopuruan onartzea eta % 60-aren ordainketa burutzea, hau da 1.200,00 euro. Gelditzen den diru-kopuru zatia kitapena aurkeztutakoan burutuko delarik.

BIGARRENA.- 2011ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

SEIGARREN PUNTUA
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEARI (EUDEL) ATXIKITZEA, ESKUBIDE OSOKO KIDE BEZALA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eskubide osoko kide egiteko asmoa duela.

Ikusirik espedientearen berri ematen dela.

Kontutan hartuz, Erakunde horren asmoak, bere Estatutuen 5. artikuluaren arabera, Udalaren suduen aldetik guztiz onuragarritzat hartu behar direla.

Kontutan hartuz, aipatu Estatutu horien 7. artikuluarekin bat etorriz, Elkartean sartzen diren Udalak eskubide osoko kideak direla.

Kontutan hartuz, Udalerriak nortasun juridikoa duela eta Udal hau bere izenean kidea izateko gai dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak onartzen duela Euskadiko Udalen Elkarteari atxikitzea, eskubide osoko kide bezala.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkarteko eskubide osoko kide bezala 300,51 eurotako ekarpena burutzea EUDEL eri, dagokion gastuari onespena emanaz.

HIRUGARRENA: 2011 urteko aurrekontuetan aipaturiko gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa aurreikustea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Euskadiko Udalen Elkarteari, hau da, EUDEL-eri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
DINA 7 TALDEAREN ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak Larraulgo Ekomuseoari buruz, Larraulgo Udalak eskaturik 2010 eko memoria aurkezten duela.

Ikusirik, aipaturiko memoriarekin batera, DINA 7 Kultur elkarteak ondorengo eskaera egiten duela:

"*Ikusirik Dina 7k Udalarekin hartutako konpromezu guztiak bete dituela eta bere lehen urteko kudeaketan beraren babes ekonomikorik gabe baliatu dela (2009 urteko Foru Aldundiko dirulaguntzari esker) eskaera hau luzatzen dugu:*

Batez ere bisita gidatuen zerbitzua bermatzeko 3.500 euroko babes ekonomikoa eta bai Larraulgo sarreran eta plazan bertan Museoko seinalizazioa jartzea.

Gainontzeko jarduerak, bai Foru Aldundia eta Jaurlaritzaren bitartez finantziatzen saiatuko gara, nahiz eta osotasunean ez diren laguntzen."

Gaia azterturik, eta zinegotzien artean adostasunik ez dagoenez, zenbateko dirulaguntza eman behar zaion DINA 7 Kultur Elkarteari, ondorengo proposamenak egiten dira:

- Adela Mendiola zinegotziak proposatzen du 1.500€ tako dirulaguntza ematea.
- Igor Barandiaran zinegotziak proposatzen du 2.000€tako dirulaguntza ematea.
- Alkatea den Xabier Mujikak proposatzen du 1.000€tako dirulaguntza ematea.

Proposamenak bozkaturik, Udalbatza honek, gehiengo sinplearekin(Xabier Mujika Alkatearen eta Gotzon Jauregi zinegotziaren botoekin), eta Karlos Irazu zinegotziaren abstentzioarekin ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA 7 Kultur elkarteari 1.000 €ko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 2011ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri DINA 7 Kultur elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
VII. AIZTONDO KLASIKOAREN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, VII. Klasikoa antolatu ondoren, emandako diru-laguntzaren kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 799,98 euro izan zen eta kostatu dena, Larraulgo kasuan 814,70 euro izan da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak VII. Klasikoa antolatu ondoren, egindako kitapena onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
VIII. AIZTONDO KLASIKOARI 2011 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak VIII. Aiztondo Klasikoaren aurrekontua bidali duela, guztira 26.000 eurotakoa dena, datorren martxoaren 13an ospatuko dena. Larraulgo Udalari 831,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 831,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2011 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

HAMARGARREN PUNTUA
2011 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari–kontuhartzaileak prestatu duen 2011 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru

Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

-Larraulgo Udaleko aurrekontua.
-Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
-Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
-Memoria.
-Txostenak.
-Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2011eko otsailaren 25ean egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2011 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingoz onartzea 759.888,00 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

I. Kap.	PERTSONAL-GASTUAK	94.000,00
II. Kap.	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	98.200,00
III. Kap.	FINANTZA-GASTUAK	3.100,00
IV. Kap.	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	68.800,00
VI. Kap.	INBERTSIO ERREALAK	458.788,00
VII. Kap	KAPITAL TRASFERENTZIAK	7.000,00
IX. Kap.	PASIBO FINANTZIARIOAK	30.000,00
	GUZTIRA GASTUAK	**759.888,00**

SARRERAK

I. Kap.	ZUZENEKO ZERGAK	43.615,04

II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	8.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	40.340,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	219.437,00
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	3.200,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	381.288,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	64.007,96
GUZTIRA SARRERAK	**759.888,00**

BIGARRENA.- 2011ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

HAMAIKAGARREN PUNTUA
LARRAULGO UDALAREN ETA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Akordioa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Larraulgo udalaren artekoa, Lehen Hezkuntzako eskaintzari buruzkoa, ondorengoa diolarik:

"AKORDIOA,HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKOA, LEHEN HEZKUNTZAKO ESKAINTZARI BURUZKOA

Aztertu egin dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zer hezkuntza-eskaintza proposatu duen 2010/2011 ikasturterako Asteasuko Pello Errota LHI rako eta ikastetxe horrek Larraulen dituen haur-hezkuntzako geletarako eta EUDELek bideratuta, 2011ko otsailaren 17an udal horretako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Sailburuordetzakoak bildu ostean, konpromiso hauek hartzea erabaki zen:

- *2010/2011 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Asteasuko Pello Errota LHI ko hezkuntza-eskaintza zabalduko die Lehen*

Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei Larraulgo Udaleko geletan ikasteko, hala nahi badute. Dena den, zabaltze horrek ez du esan 2011n eta 2012an unitate-kopurua handituko denik.

- *Horrek esan nahi du Larraulgo Udalak eta familiek konpromiso bat hartzen dutela, hau da, onartu egiten dute eskaintza hori izango dela etorkizunean udalaren hezkuntza-eskaintza, eta ondorioz ez dute udalerako hezkuntza-eskaintza handitzerik ez eskatuko.*
- *Era berean, Larraulgo Udalak egin beharreko prozesu-jardun guztiak egingo ditu, 2011ko martxoaren 10a baino lehenago atzera egiteko Udal Administrazio horrek 944/2010 eta 1443/2010 zenbakiez Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan irekita dituen prozeduretan.*
- *Egun Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan Larrulen eskolatuta duden ikasleen hezkuntza-ibilbidea kaltetu ez dadin, hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira irakasleek maila horretako curriculuma aplika dezaten.*
- *2011/2012 ikasturtea amaitzean eta nolanahi ere 2012/2013 ikasturteko matrikulazioaldia amaitu baino lehenago, akordio hau sinatzen dutenak bildu egingo dira akordio honetan erabakitakoaren bilakera eta betetze-maila aztertzeko; era berean, aztertu egingo dute zein egoeratan dauden Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora igarotzekotan duden ikasleak, eta orduan baloratuko dute haien egoera berezia.*

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 3an."

Ikusirik Murgil guraso Elkarteak Larraulgo Udalari eginiko proposamena, non, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Larraulgo udalaren arteko akordioa, Lehen Hezkuntzako eskaintzari buruzkoa, onartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ESKATZEN DU:

LEHENA: Akordioa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Larraulgo udalaren artekoa, Lehen Hezkuntzako eskaintzari buruzkoa onestea.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola ahalmentzea, Akordioa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Larraulgo udalaren artekoa, Lehen Hezkuntzako eskaintzari buruzkoa, sinatzeko.

HIRUGARRENA: Kostaraztea, Osoko bilkura honek Hezkuntza Sailetik bidalitako akordio proposamena onartu eta sinatu behar den erabakia hartzen ba du ere, beren ikuspegitik, agiri horretan azaltzen diren puntu batzuk inolaz ere ezin dituela onartu aldarrikatzen du, baita legediaren aurkakoak direlako eta, batez ere, Udalak zein Larraulgo Herriak etorkizunean izan ditzakeen ebazpen eta ekimenei ezin zaielako

ukorik egin. Larraulgo eskola lortzeko bidean, aurrerapauso bekarra utzi digulako sinatu dugu.

LAUGARRENA: Kostaraztea, Larraulgo Udalak eta Herriak berak oso osorik mantentzen dituzte hamabi urte bitarteko bertan eskolaratzeko eskabidea eta asmoa. Berdin eskola propio izatearen nahia eta ekimena. Aurrerantzean, beraz, eskubide guztiak gordetzen ditugu geure eskolaratze helburuak asetzeko eginbeharreko ekimenak bultzatu eta aurrera eramateko.

HAMABIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	129,20
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	8.788,91
GRAFICAS SORTU	215,06
KIROLZER	126,80
LAVANDERIA LIZARRA	312,88
BERRI LANTEGIA	36,00
EBA ERKIZIA BRION	933,45
MAFRE	546,06
URKI-ONDO	38,88
AIZTONDO MANKOMUNITATEA	1.000,00
IBERDROLA	128,83
IBERDROLA	241,63
IBERDROLA	32,34
IBERDROLA	75,05
IBERDROLA	25,15
IBERDROLA	247,73
IBERDROLA	320,95
IBERDROLA	142,31
IBERDROLA	164,23
MOVISTAR	95,06
MOVISTAR	17,99
MOVISTAR	91,28
MOVISTAR	20,47
EUSKALTEL	183,20

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.913,46** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

13.1.LARRAUL-ERNIO-LARRAUL MENDI LASTERKETA

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, datorren martxoaren 20an ospatuko dela.

Ikusirik Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa, Larraulgo Udalak antolatzen duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2011 urteko aurrekontuetan 600 euro aurrikustea eta aipaturiko gastua onestea.

13.2. HERRI OSTATUAREN KUDEAKETAREN JARRAIPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik, aurreko Udalbatzan Udaletxe honek jakitera izan zuela, Larraulgo Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak hainbat zor zituela.

Ikusirik, Udaletxe honek jakitera izan zuela, Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak, zorrak kitatzeko hainbat pauso eman zituela.

Ikusirik, aurreko Udalbatzan erabaki zela, T.P. jaunak Larraulgo Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak, dituen zorrak kitatzeko eman behar dituen pausoen jarraipena egitea.

Ikusirik Udaletxe hau T.P. jaunak dituen zorren jarraipena egin duela, hauek kitatzen ari delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: T.P. jaunak Larraulgo Ostatuaren kudeaketa eramaten duenak, dituen zorrak kitatzeko eman behar dituen pausoen jarraipena egitea, zorrak kitatu arte eta hemendik aurrera fakturen ordainketa egiten dituela ziurtatu arte.

13.3. 2011ko MAIATZAREN 22 OSPATUKO DIREN UDAL HAUTESKUNDEEI BURUZKO PROPOSAMENA, HALA BADA

Ikusirik datorren maiatzaren 22an Udal Hauteskundeak ospatuko direla. Horretarako Herri Aukera Taldearen zerrendaren aukeraketa egin behar dela.

Ikusirik zinegotzien zenbatekoa zehazteko 2010eko urtarrilean onesturiko Udal errolda kontutan izan dela, horregatik Herri Aukera Taldea 7 zinegotziz osaturik egongo da eta hauen artetik zerrenda burua, hau da, Alkatea zehaztuta egongo da.

Ikusirik Herri Aukera Taldearen aukeraketa egiteko herri bilera bat antolatu behar dela. Aurreko Udalbatzak hartutako erabakian zehazten zen modura, Larraulgo Kultur-gunean egingo da, martxoaren 27an igandea, eguerdiko 12etan. Horretarako herritar guztiei jakinarazi zaielarik.

Ikusirik Udal hauteskunde hautan aurkeztu beharreko zerrenda 7 zinegotziez osaturik egongo dela, aukeraketa herri bileran egingo dela, aukeraketa sistemaren proposamena Udalak zehaztuko duelarik eta ondoren herritarrei jakinarazi.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Herritar guztiak gonbidatzea, datorren martxoaren 27an Larraulgo Kultur-gunean eguerdiko 12etan egingo den herri bilerara, bertan datorren maiatzaren 22an ospatuko diren Udal Hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko Larraulgo Herri Aukera Taldea osatuko delarik.

13.4. 2011 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkate jaunak 2011 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, zeinaren zenbateko osoa 15.739,52 eurotakoa den.

Bertaratuek, aipatu errolda fiskala azterturik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2011 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendeaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2011 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2011ko apirilaren 1etik ekainaren 1era bitartekoa izatea.

13.5.OTXOZABAL BASERRIAREN TEILATUA KONPONTZEKO OBRA BAIMEN ESKAERA, G.J.S.

Ikusirik G.J.S. jaunak eginiko eskaera, non Otxozabal baserriaren teilatua konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako aurrekontu bat aurkezten du.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen direla, eta 66º artikuluak baserrien zaharberritzearenak.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-….

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la **teja cerámica**, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

1.-Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art. 49 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. Pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datoz.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Gaia azterturik, Gotzon Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- G.J.S. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Otxozabal baserriko teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera onestu, betiere Udalbatza honek zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

15.6.NATURA 2000 SAREKO ERNIO-GATZUME LEKUA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATZEA ETA LEKU HORRI DAGOZKION ZAINTZA-NEURRIAK ONARTZEARI BURUZKO HASIERAKO ONARPENARI ALEGAZIOAK AURKEZTEKO, ERREZILGO UDALAK EGINIKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA

Ikusirik 2011ko otsailaren 3ko Udalbatzarrean berri eman zela, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Sailburuordetzatik igorritako idatzia, non Natura 2000 sareko Ernio-Gatzume lekua kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea eta leku horri dagozkion zaintza-neurriak finkatzeko dekretu-egitasmoari hasierako onespena ematea erabaki zuela ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 2010eko abenduaren 23ko aginduaren bidez.

Espedientea bideratzen jarraitzeko (idatzian zioenez), 2011ko otsailaren 4an, jendaurreko informaziorako 30 egun naturaleko epea zabaltzeko iragarkia argitaratuko zen EHAAn, epe hori 2011ko martxoaren 7an bukatuko zelarik.

Ondorioz, Larraulgo Udalak interesa izanez gero, dagokion txostena igorri beharko zuen Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara 2011ko martxoaren 7a baino lehen.

Ikusirik Errezilgo Udalak, Natura 2000 sareko Ernio-Gatzume lekua kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea eta leku horri dagozkion zaintza-neurriak finkatzeko dekretu-egitasmoari hasierako onespenren aurka alegazioak aurkeztu behar dituela, inguruko Udalei berarekin bat egiteko proposamena luzatzen dielarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Natura 2000 sareko Ernio-Gatzume lekua kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea eta leku horri dagozkion zaintza-neurriak finkatzeko dekretu-egitasmoari hasierako onespenaren aurka alegazioak ez aurkeztea. Beraz, Errezilgo Udalak eginiko proposamena ez onartzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Errezilgo Udalari ematea.

HAMALAUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 21:40 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA